

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eramateko finantza baliabideak eskuratu beharko ditugu, eta horretarako ezinbestekoa iruditzen zaigu gutako bakoitzak diru kantitate jakin bat jartzea. Honi esker errazagoa izango da gure zerbitzua martxan jartzea eta arazorik edo ezustekorik sortuko balitz dirua dugu eskuragarri. Hasiera batean ez dugu irabazi-iturri handirik izango, eta proiektua aurrera eraman ahal izateko, eta horren beharrezkoak diren irabaziak sortzeko, diru sarrerak beharko ditugu. CAX taldeko bost partaidetako bakoitzak, 1000€ jarri beharko ditu proiektuari hasiera emateko.

Hala eta guztiz ere, ezinbestekoa da nahikoa diru irabaztea, alokairua ordaintzeko, edozein material eskuratzeko edo erosketaren bat egiteko. Beraz, taldeak ondo funtzionatu beharra du eta horretarako, bakoitzaren eginkizuna zein den argi gelditubehar da.

Gure elkarteak garraiorik ez edukitzea ez luke zentzurik izango, izan ere, Euskal herritik mugitzen gera eta materiala garraiatzen dugu, beraz, garraio bat beharrezkoa da, zorionez Maddik, ekintzaile batek, furgoneta bat du, beraz primeran etorriko zaigu. Gainera, bera arduratuko da beste ekintzaile guztiak eramateaz.

Gure enpresaren eskubideaz ez gara arduratu beharko, izan ere, gutako baten aitak zuzenbidea ikasi zuen, eta horrezkero abokatua da. Berak lagunduko digu gobernuarekin eta udaletxeekin arazorik ez edukitzen. Beraz, abantaila handia dugu, zorionez ez ditugulako kosturik izango eta konfiantzazko pertsona delako.

Eskuragarritasuna ziurtatzeko web orrialde bat sortuko dugu, bertan gure elkartearen ekintza eta plangintzen informazioa eskuratzeko, baita gu hobe ezagutzeko. Webgunea, Cristinak eramango du, oso ona baita webgune eta sare sozialen kudeaketan. Guk informazio bat emango diogu, zer jarri, nola jarri, eta berak egingo du. Horrez gain sare sozialetan ere, gure elkartearen ezagutzera emango dugu. Gainera, horretan abantaila handia dugu, izan ere, Cristinak sare sozialetan arrakasta handia du.

Giza baliabideak ere garrantzitsuak izango dira proiektua aurrera eramateko. Sormena, ezagutza eta gaitasun komertzialik gabe ez goaz inora. 5 kide gara eta guztiok batera hiru ezaugarri horiek betetzen ditugu. Saiok gaitasun komertziala du, harremanetarako trebea da, hortaz, tratuak berak egingo ditu. Anne oso pertsona irekia da, beraz, bera arduratuko da bezeroekin ekintzak egiteaz. Sormenari dagokionez, Maddik irudimen handia du, beraz bera izango da buruari ekingo diona,

Naroa berriz, ekonomiarekin adituak dira, beraz berak esango digu zer komeni zaigun eta zer ez.

Horretaz aparte, noizean behin inkestak pasatuko ditugu gure ekintzetan parte hartzen duten pertsoneri, gure elkartearen hobetzeko helburuarekin. Beraien iritzia oso garrantzitsua da, beraiek gabe hau guztia ez litzatekeelako posible izango.

Amaitzeko, gure lan taldeak hainbat baliabide fisiko erabiliko ditu. Adibidez, ordenagailua, web gunea eta sare sozialak eramateko; eta baita mugikor bat, udaletxeetako deiak jaso ahal izateko. Sistema informatiko hauek eskuratzeko ez dugu arazorik, gure etxeetan erraz aurkitu ditzakegulako. Horrez gain, alokatutako lokala Uggasarekin dugu, eta bukatzeko material ezberdinak ekintzak egiteko.

